

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****ONGIZATE BATZORDEA****IRAUPENA****ORDU 1****EGUNA****2019-04-25****GAIA**

-

DEIALDIA**19:00****PARTE HARTZAILEAK**

Iñaki Etxezarreta

Endika Igarzabal

Jabier Garcia

Xabier Barriola

Eli Elgarresta

Iker Etxezarreta

Ezinetorriaadierazidutenak: Arantxa Bidegain, Iñaki Sarriegi

ERABAKIAK**GAIA****EKINTZAK****ARDURADURA****NOIZKO****HAURESKOLA**

- Momentuz irekita dago 3 hurrekin, baina datorren urterako 3 urte beteko dituen horietako batek, irailean 2 egongo lirateke, beraz, itxi egin beharko da beste inor aurkitu ezean.

ZABORRAK

- Itsasorekin adostasun batetara iritsi gara Alegi auzoan guneez berririk egin gabe gabiriarrek bertara zaborra eramaten jarraitu ahal izateko. Sasietak sortutako zabor kg-en arabera kobratzen duenez, gabiriarren zaborra dirua kostatzen zaiela izan da arrazoia, Itsasokoa balitz bezala agertzen delako Sasietako datuetan. Horregatik, formula bat adostu da Gabiriako udalak Itsasokoari urtero kuotaren zati bat ordaintzeko, sortzen den kopuruaren arabera (urtean 3000€ inguru ateratzen da)
- Adostasun hau plenoan onartuko da, bi herriek sinatuko dutelarik.

**ADINEKOENTZAT
TOPAGUNEA**

- Jendea oso gustura dabil. Nahiz eta hasieran hasitako kopurua ez mantendu, 8-10 laguneko talde egonkor bat lortu da.
- Apuntatu ziren eta etortzeari utzi dioten horiekin hitz egitea ondo legoke horren arrazoiak jakin, eta zerbitzu osoago bat eskaini ahal izateko.

**GOI TENTSIOKO
LINEA**

- Laburbiltze aldera, 3 proiektu daude mahaiaren gainean, nahiz eta fase desberdinetan: Gueñes-Itsaso I 400kV (berria), Dicastillo-Itsaso 400kV (berria) eta Gueñes Itsaso II 400kV (egungo 200kV-aren repotenziazioa).
- Gueñes-Itsaso I: Oso aurreratua dago proiektu hau eta ekainean obrekin hastekoak dira. Lurjabeekin jarri dira harremanetan Red-Electricakoak, eta udaletik abokatu batekin jarri dira harremanetan nahi duenak beraiekin gaia lantzeko.
- Gueñes-Itsaso II: egungo 200kV-ko linea 400kVetara pasatzeko asmoa daukate.
- Dicastillo-Itsaso: Lehen geratzea lortu zen proiektua berriro martxan jartzera doaz. Momentuz, aurreproiektu fasea dago, baina aste honetan alegazioak jartzeko epea amaitzen da. Udalak honen kontrako jarrera agertu du.

HURRENGO BILERA: uztailak 9, 19:00tan